

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 751/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 9koa, zeinaren bidez izendatzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 10eko 186/2019 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatuko dituen epaimahaiko kideak. Foru dekretu horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoan 2020ko ekitaldian kultura-proiektuak egiteko foru diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira.

Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 10eko 186/2019 Foru Dekretuaren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoan 2020ko ekitaldian kultura-proiektuak egiteko foru diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira.

Foru Dekretu arautzaile horren 9. Oinarrian honakoa ezarri da: aurkezten diren eskabideak aztertu eta ebaluatuko dituen epaimahai kalifikatzailea eratu da; kideak Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu andreak izendatuko ditu foru agindu baten bidez. Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44 artikuluan ezarritakoa beteko da.

Oinarri horretan xedatutakoa aintzat hartuta eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauko 39.i) eta 67.1 artikuluek, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, Euskara eta Kulturako Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudia onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 foru dekretuak eta gainontzeko baterako xedapenek Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko titularrari ematen dizkioten eskumenak kontuan harturik, eta izan daitezkeen abstentzio eta/edo errefusatzeeen ondorioetarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23 eta 24. artikuluetan xedatutakoaren arabera, honako hau.

XEDATUTZEN DUT:

Lehenengoa: Abenduaren 10eko 186/2019 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko ardura duen epaimahaiko kideak izendatzea eta proposamena egitea eta hura Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu andre txit argiari aurkeztea, behin betiko ebazpena eman dezan. Epaimahaia honakoek osatzen dute:

- Epaimahaiburua:
 - Andoni Iturbe Amorebieta (Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendari Nagusia).
- Ordezko epaimahaiburua:
 - Xabier Arauzo Uriarte (Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendari Nagusia).
- Epaimahaikide titularrak:
 - Dorleta Goiburu Muruaga (EUDELen ordez).
 - Montserrat Petralanda Gorrotxategi (Argitalpenen eta Kultura Zabalkundearen Ataleko Burua).
- Ordezko epaimahaikideak:
 - Ainara Bergaretxe Undabarrena (EUDELen ordez).
 - Mikel Etxebarria Etxeita (Kultur Ekintzako Zerbitzuko Burua).
- Idazkaria titularra, botorik gabe:
 - Mikel Murillo Aurrekoetxea (Kultur Proiektuen Zuzendaritzako teknikaria).
- Ordezko idazkaria, botorik gabe:
 - Susana Pérez Cobo (Kultur Ekintzako Goi Mailako teknikaria).



Bigarrena: Foru Agindu hau interesdunei jakinaraztea, baita Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuari ere, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Tercero: Agintzea Foru Agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

AZKEN XEDAPENA

Azken Xedapen Bakarra. — Indarrean jartzea

Honako Foru Agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2020ko martxoaren 9an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA